Aldaketa proposamenak

- **Taula guztietan izenburua eta iturria adierazi behar dira. Zuk egindako taulatan Iturria: 2enpresaren UUKKetan oinarrituz norberak egina" edo antzeko zerbait jarri dezakezu.**
- **Enpresen kalkuluak taulatan "milaka eurotan" direla izenburuetan aipatu, bestela oso arraroak geratzen dira zenbatekoak.**
- **Word-eko zuzentzailea pasa eta zuzendu, hainbat hitz ez daude ondo idatzita.**

Negozio zifrari buruz ari zarenean, batzuetan, "diru-sarrera" jartzen duzu. Aldatu eta "Sarrera" jarri.

1. Aurkibidean, "irudia" I maiuskulaz jarri
2. Sarrera; laburpena "abiazio komertzial" kontzeptuarekin hasten da. Gure uste "bidaiaren abiazio komertzial" kontzeptua erabiltzea hobeto legoke.
3. Sarreran, 4. Paragrafoan bi koma jarraian daude , bat kendu
4. 3.5 puntuan PORTER analisian, Bezeroen **negoziazio**-boterea diozu, baina Hornitzaileen nego**ziaketa**-boterea. Homogeneizatu.
5. 4.1 puntuan, lehen paragrafoan eta 3. Paragrafoan errepikatu duzu. Lehen paragrafoa soberan dago.
6. 4.5. `puntuan, akzio egitura eta finantzaketa da izenburua, baina 3. Taulako edukia ez da gai horri buruzkoa, ezta?
7. 5. puntuan,
    a. 1. Paragrafoan "lan hau egiten ari naizen" diozu, baina "lan hau egiten hasi nintzenean" egokiagoa litzateke.
    b. 2. Paragrafoan 2024ko azterketa ez dela puntu honetan sartuko aipatzen da. Ondoren 6. Eta 7. Ataletan 2024ko analisia egingo dela aipatu
    c. 41. Orrian "hornidurak aipatu USTIAPENEKOAK" idatzita daukazu. Zerbait idazteko asmoa zeneukala dirudi. Honekin erlazio zuzenean Errotazio Fondoan, hornidurak ustiapenetik kanpo kokatuta daukazu eta ez da zuzena. Bere garaian komentatu genizun Ustiapenekoak direla eta hau aldatzea ahaztu zaizula dirudi. Hau aldatzen baduzu, ondorengo zenbait kalkulu eta interpretazio ere aldatu beharko zenituzke.
    d. 6. Taulan 7 Ustiapeneko bestelako gastuak dira, baina ondoren KANPO ZERBITZUAK dira.
    e. 11. Taulan BBHren analisia da izenburua, baina benetan hori da helburua? Errotazio Fondoan dauden izakin, bezero eta hornitzaileen bilakaera azaltzean, d-ek daukaten eragina azaltzeko kalkulatzen dira, beraz, Errotazio fondoaren taulan hiru elementu horien bilakaera azaltzean erabili beharreko informazioa da, ez analisiaren puntu berezi bat. Gainera, kontuz, salmenta epeari buruz ari zarenean Erosketak handitu direla diozu, baina datuek ez dute hori adierazten.
    f. 5.6 puntuan Diru-Fluxuen Egoera da (ez aldaketen). Hasiera batean, 2022an UDF-IDF-FDF erlazioa komentatzen duzu, aldiz, 2023an UDFn soilik zentratzen zara eta hemen esandakoak (58.orria) berriro errepikatzen dituzu 61. Orrian). Beraz, hasieran 2022an bezala hiru fluxuen erlazioak aipatu eta ondoren UDF sakondu.
    g. 19. Taulan 2023ko r2-r3 negatiboa da ere.
8. 6. Puntuan. Errotazio Fondoan hemen ere hornidurak ustiapenetik kanpo jarri dituzu, beraz, Volotean aldatzekotan hemen ere, gainera 77. Orriko azken paragrafoa aldatu beharko duzu horren ondorioz.
9. Ondorioak

a. 2. eta 3 Paragrafoan 22-24 bilakaera aipatzen da. Ondoren 22 eta 23 analisiko datuak komentatzen dira. 2024ko analisiaren ondorioak barneratzea komeni da, Vueling eta sektorearen konparaketan azaldu diren ahuleziak aipatzen. 2024 ean hobekuntza argia da emaitzetan (nahiz eta oraindik (-) izan), Ebitdan (+120 mill €) , nahiz eta egoera finantzarioa larria izaten jarraitzen duen.

b. Enpresak galerak daukan bitartean bere OG murrizten doa. Laneko 4.5 atalean, bi fasetan egingo den 100 milioiko kapital zabalkuntza bat aipatzen da. 2024 taldeko zorrak 47 milioi handitzen dira, suposatu dezakegu lehenengo ekarpena hau dela??...

c. Horrela balitz bere egitura finantzarioan ez dute hobekuntza ekarriko. Dena den atzetik dauden akziodun berrian konfiantza aipatuko genuke. Mundu mailako sektoreko akziodun garrantzitsuak (munduko beste konpainia oso esanguratsuen jabeak) interesa erakutsi dute Volotea enpresan, bere etorkizunean konfiantza azalduz, bere etorkizun argiaren moduan interpretatu daiteke. Ideia hau azkeneko paragrafoarekin lehenengo zatiarekin lotuko genuke.

d. Ondorioetako azkeneko paragrafoan ustiapeneko emaitza positiboa dela 2024 urtetan aipatzen da. Horrela da? Sabiko datuetan oraindik 22 milioi (-) azaltzen da

10. Eranskina 2024ko balantze eta GI orriak sartu?

8500

500.000

50.000 × 10 = 500.000